

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2023 Foru Dekretua, ekainaren 6koa. Onestea 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzen oinarri arautzaileak, bai eta 2023ko laguntza lerro horren deialdia ere

2021/2115 (EB) Erregelamenduak Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko abenduaren 2koa, nekazaritza politika erkidearen esparruan (NPBren plan estrategikoak) estatu kideek landu behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen ditu, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatu eta 1305/2013 (EB) eta 1307/2013 (EB) Erregelamenduak indargabetzen ditu.

Erregelamendu horretan jasotako helburu espezifikoaren artean dago "nekazari gazteak eta nekazari berriak erakarri eta laguntzea, eta enpresa garapen jasangarria erraztea landa eremuetan."

Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onetsitako NPEren Plan Estrategikoaren (NPEPE) bidez, NPEren esku hartze guztiak biltzen dituen estrategia bakarra ezarri da, 2023-2027 aldirako, lurralde nazional osorako.

Plan horrek nekazari gazteak ezartzeko esku hartze bat jasotzen du, belaunaldi erreleboan laguntzeko helburuarekin eta landa eremuetan enplegua sortzeko. Horretarako, laguntzak emango zaizkie hasierako ezarpenaldian, enpresa jarduera ororen hasieran sortzen diren erronka ekonomikoetan lagunduz, errentagarritasun egokia sortzeko gai izan arte.

Horregatik, NPEPEn xedatutakoaren babesean, nekazari gazteak ezartzeko oinarri arautzaile batzuk argitaratu behar dira, Europako araudi berri hori jasoko dutenak. Izan ere, NPEPE 2023-2027 indarrean dagoen bitartean arautuko dute, eta dekretu honen eranskin gisa ezartzen dira.

Oinarri hauen ondoriozko deialdiak honako hauen arabera gauzatuko dira: 2021/2115 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko abenduaren 2koa; 2021/2116 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko abenduaren 2koa; erregelamendu delegatuak eta horien betearazpenekoak; 30/2022 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duena, eta hori garatzen duten errege dekretuak; 2023-2027 aldirako NPEren Plan Estrategikoa, eta LGENFk kofinantzatutako laguntzei aplikatu beharreko Europar Batasuneko gainerako arauak. Laguntza horiek finantzatzeko, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eta Europar Batasuneko LGENF funtsen aurrekontu kredituak erabiliko dira, Europako Batzordeak onartutako 2023-2027 NPBren Plan Estrategikoan agertzen diren baterako finantzaketaren ehunekoekin bat etorritik.

Deialdia prestatzeko, kontuan hartu dira Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legea, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea.

Xedapen hori bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioekin.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 aldirako Plan Estrategikoaren esparruan 6961.1 esku hartzerako (Nekazari gazteak ezartzea) laguntzen oinarri arautzaileak, 2021/2115 (EB) Erregelamenduan eta haren babesean Eusko Jaurlaritzak onesten duen esparru dekretuan ezarritako mugen barruan.

Bigarrena. Onespena ematea laguntza lerro horren 2023ko deialdiari, ondoko xehetasunaren arabera:

– Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliodun, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

– Laguntza eta ordainketa eskabideak aurkezteko lekuak honako hauek izango dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

– Laguntza eta ordainketa eskaerak telematikoki egin ahal izango dira, egoitza elektronikoen izapide espezifikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu-/ayudas-creacion-empresas-jovenes-agricultores>).

– Eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta, eskabidez gain, honako foru dekretu honen II eranskinean zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dira.

– Espedienteak lehenesteko irizpideak: Deialdi honetako laguntzak emateko espedienteak lehenesteko irizpideak oinarri arautzaileen 15. artikuluan ezarritakoak izango dira.

– Laguntzen zenbatekoak: Eskatzaile bakoitzari dagozkion zenbatekoak oinarri arautzaileen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu dira. 2023ko deialdirako honako zenbateko hauek zehazten dira:

– Baremagarritzat jotzen diren inbertsioen eta gastuen gehieneko zenbatekoa (Max): 300.000,00 euro.

– Diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa enpresa planean aurreikusitako gastu eta inbertsioengatik (Y): 50.000,00 euro.

– Dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa (Min): 10.000,00 euro.

– Ekoizpen ereduetan, merkaturatze ereduetan eta ustiategiaren ezaugarrietan sartutako irizpide bakoitzari aplikatu beharreko laguntzaren zenbatekoa: gehienez 20.000,00 euro guztira eta 2.500,00 euro irizpide bakoitzerako.

Aurreko zenbatekoak dirulaguntza kalkulatzeko erabiliko dira, aipatutako 11. artikuluan jasotako formularen arabera:

$$\text{Gastu eta inbertsioetarako dirulaguntza} = (Z - 10.000,00) \times 0,137931 + 10.000,00$$

Z izango da enpresa planean jasotako gastu eta inbertsio baremagarrien zenbatekoa.

– Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiko 2023. urterako gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/77000409 “Nekazari gazteek enpresak sortzea 2023” partidaren kargura, guztira, 1.350.000,00 euro, urteka honela banatuta:

- 2023: 300.000,00 euro.
- 2024: 250.000,00 euro.
- 2025: 300.000,00 euro.
- 2026: 250.000,00 euro.
- 2027: 250.000,00 euro.

Aipatutako kredituak zenbateko gehigarrien bidez handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, bai eta aurrekontuko partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidaren kreditu gehikuntzarik izan bada emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditua eskabide horietan erabiliko da, ezarritako lehentasun irizpideei jarraikiz, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Esku hartze honi heldu nahi dioten gazte guztiek 2023ko deialdi honetan egin beharko dute eskaera, eta laguntzaren oinarri arautzaileetan xedatutako gainerako betekizunak eta konpromisoak bete.

Bosgarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena aitortzen zaio foru dekretu honetan xedatutakoak garatu eta betearazteko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzailea. Foru dekretu honen aurka egiten duten maila bereko edo behe-ragoko xedapen guztiak indargabetzea, eta, bereziki, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

NEKAZARI GAZTEAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN KOKATZEKO LAGUNTZEN
OINARRI ARAUTZAILEAK (6961.1 ESKU HARTZEA)

1. artikulua. Xedea

1.1 Foru dekretu honen xedea da nekazari gazteak Arabako Lurralde Historikoan kokatzeko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea. Horretarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2021eko abenduaren 2an 2021/2115 Erregelamenduko 75. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Horren bidez, Estatu kideek nekazaritza politika bateratuaren arloan egin behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzen arauak ezartzen dira (nekazaritza politika bateratuaren (NPB) plan estrategikoak).

1.2 Foru dekretu honi I. eranskinean jasotako definizioak aplikatuko zaizkio.

2. artikulua. Esku-hartzearen berariazko helburua

Esku-hartze honek hurrengo berariazko helburuak lortzen laguntzen du:

- Nekazari gazteak erakartzea, haiei laguntzea eta landa eremuetan enpresa garapen jasagarria bideratzea.
- Nekazari gazteak nekazaritza ustiategietako titular gisa lanean hastea, belaunaldi erreleboari laguntzeko, biztanleak landa eremuetan finkatzen ere laguntzeko, izan ere, oro har, gero eta biztanle gutxiago dituzte.
- Enplegua, hazkundera, genero berdintasuna, emakumeek nekazaritzan parte hartzea, gizarteratzea eta landa garapena sustatzea landa eremuetan; horien artean, bioekonomia zirkularra eta basogintza jasagarria.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza horren onuradunak izan daitezke Arabako Lurralde Historikoan nekazaritza ustiategi baten titularrak diren, esku hartzea aukeratzeko baldintzak betetzen dituzten, eta enpresa plan bat garatzen duten pertsona fisikoak, betiere oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzak eta konpromisoak lortzeko helburua badute.

4. artikulua. Nekazari gazteak sartzeko edo kokatzeko modalitateak

Pertsona gazte bat nekazaritza ustiategi batean instalatu dela ulertzen da nekazaritza jarduna garatzeko jotzen duenean ustiategira, berau kontrolatuz, beharrezko baliabideak eskuratzeko enpresa plan bat garatuz, nagusiki nekazaria izateko eta ustiapen dimentsio egokia lortzeko dagokion lan bolumena eta nekazaritza errenta aintzat hartuta.

Gazte bat nekazaritza ustiategi batera sartzeko modalitateak hauek izan daitezke:

4.1 Ustiatetik titular bakarra izatea (aurretik dagoen ustiatetik batean edo beste ustiatetik bat sortuz):

Gaztea ustiatetik baten titular bakarra denean eskualdaketa kontratu baten bidez (oinordetza, erosketa, oinordetza ituna, jabari osoko dohaintza, gozamina, errentamendua edo indarreko legediari egokitzen zaizkion bestelako moduak) sartuko da ekoizpen baliabideetara. Barne hartuko dira, besteak beste, ustiatetgiaren eta hura osatzen duten ondasun eta eskubide multzoaren kudeaketaren erantzukizun zibil eta fiskala.

Formalizatzen duen agiriak gutxieneko iraupena izango du, laguntzaren onuradun gisa, jarraitzeko konpromisoa amaitu arte titulartasunaren baldintza bete dezan, eta hori guztia eskritura publikoan jasoko da. Errentamendua bada, Eusko Jaurlaritzaren Landa Errentamenduen Erregistro Ofizialean eman dezake izena, eta apartzeria kasuetan, sinaduren legitimazioaren bidez egin ahalko da.

4.2 Sarbidean ez bada pertsona titular bakarra, honako egoera hauek gerta daitezke:

- a) Ustiatetgiaren titularkidea izatea, Titulartasun Partekatuko Erakunde (TPE) gisa, arlo horri buruzko berariazko legediarekin bat.
- b) Elkarte izaerako erakunde bateko bazkide gisa sartzea, nortasun juridikoarekin edo hori gabe, aurretik jada dagoena, edo eratu berria, nekazaritza ustiatetik baten titularrak izatea eta xede eksklusiboa nekazaritza jarduera egitea izatea, eta hala badagokio, nekazaritza jarduera osagarria.

Sortzen den elkarre ustiatetgiak bazkideen ehuneko 50ek gutxienez nagusiki nekazariak direla egiaztatu beharko du, eta kapital sozialaren ehuneko 50 gutxienez nagusiki nekazaritza diren bazkideen esku egon beharko du.

Sozietateak egiaztatu beharko du gutxieneko bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren ustiatetikiko elementuen titulartasuna daukala, jabetza osoaren bidez, gozamina, errentamendua, edo ustiatetikiko elementuen indarreko legediarekin bat datorren bestelako eskualdaketa kontratua. Formalizatzen duen kontratuak gutxieneko iraupena izango du, laguntzaren onuradun gisa, jarraitzeko konpromisoa amaitu arte titulartasunaren baldintza bete dezan, eta hori guztia eskritura publikoan jasoko da. Errentamendua bada, Eusko Jaurlaritzaren Landa Errentamenduen Erregistro Ofizialean eman dezake izena, eta apartzeria kasuetan, sinaduren legitimazioaren bidez egin ahalko da.

Horri dagokionez ustiatetgiaren elementutzat jotzen dira landa-izaerako ondasun higiezinak eta nekazaritza-aprobetxamendu iraunkorreko beste objektu batzuk; nekazaritza eraikinak eta instalazioak eta abereak, makinak eta ustiatetgian sartutako eta hari atxikitako lanabesak, zeinen aprobetxamendua eta erabilera haren titularrari baitagokio. Era berean, "ustiatetikiko elementu" dira ustiatetgiaren titularrari dagozkion eskubide eta betebeharrak, baldin eta horiek titularraren ustiatetgiari lotutakoak badira.

Kasu guztietan, instalatzen den gazteak ustiatetgiaren kontrol eraginkorra duela bermatuko da. Gazte batek ustiatetikiko pertsona juridikoaren gaineko kontrol eraginkorra duela ulertuko da zuzendaritza batzordeko edo gobernu organoetako kidea denean, eta gutxienez, partaidetzarik handiena duen

bazkidearen berdina edo handiagoa den kapital soziala badu, ustiapenaren arrisku eta erantzukizun zibil, fiskal eta sozialak partekatuz.

Elkarte erakunde batera sartzeko, edo hura sortzeko, eskritura publikoan jasoko den agiria egingo da, titulartasuna partekatua badu salbu, bere legediak aratuko baitu.

Edozein dela gaztea elkartean sartzten den modua, titular bakar gisa sartzten den pertsonari eskatutako baldintza berak bete beharko ditu.

5. artikulua. Onuradunen betekizunak

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke laguntza hau eskatzen duten unean baldintza hauek betetzen dituzten gazteak:

- a) 18 urte bete izatea eta laguntza eskaera aurkezten duen urte naturalean 41 urte edo gehiago ez betetzea.
- b) Instalazio prozesua onartzea Gaztenek 2023-2027 prozeduran aurreikusitako baldintzen arabera.
- c) Oinarri arautzaile hauen 9. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituen enpresa plan bat aurkeztea.
- d) Zentro homologatu batean egindako 200 orduko gaitasun profesionala egiaztatzea, Gaztenek 2023-2027 prozeduran ezarritakoaren arabera. Ordu horietatik, 100 ordu, laguntza eskaera egiten den unean bertan egiaztatu beharko dira. Gehienez, 36 hileko epean, laguntza ematen den ebazpen egunetik aurrera zenbatzen hasita, gazteak bere prestakuntza prozesua burutu beharko du.

Eskatutako gaitasun profesionala dutela ulertuko da nekazaritza arloko unibertsiteate titulua, erdi edo goi mailako prestakuntza zikloa, edo 2. edo 3. mailako profesionaltasun ziurtagiri bat edo nekazaritza arloko ikastaro trinko bat duela egiaztatzen duten pertsonak.

- e) Nekazaritza ustiategi batean lehen aldiz ezartzea, haren titular edo bazkide gisa.

Gazteek aurkeztutako eskaerak onartu ahalko dira, baldin eta esku hartzean hautatuak izateko ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte eta laguntza-eskaeraren data aurreko 24 hilabeteetan ustiapen baten titular bihurtu badira.

Xede horietarako, ez da hartuko gazte bat dagoeneko aldez aurretik instalatuta dagoela, titular gisa alta emanda egon bada, eskaera data baino 24 hilabete lehenago, 0,20 nekazaritzako lan-unitate (NLU) baino gutxiagoko ustiategi batean, indarreko legedi autonomikoaren arabera kalkulaturik, laborantzen marjina gordinak eta NLUak zehazteko modulu objektiboak ezartzen dituenak.

- f) Lehen instalazioko laguntzarik jaso ez izana.
- g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekikoak egunean izatea.

- h) Nekazaritza-jardueratik eratorritako baliaezintasun absolutuko edo erabateko baliaezintasuneko pentsiorik ez jasotzea.

6. artikulua. Nekazaritzako ustiategiaren baldintzak

Gaztea instalatzen den nekazaritza ustiategiak baldintza hauek bete beharko ditu bere enpresa plana bukatutakoan:

- a) Berez, unitate tekniko-ekonomiko bat eratzea, jarduera zuzen gauzatzeko beharrezko baliabideekin.
- b) Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategien erregistroan izena emanda egotea Arabako Foru Aldundiaren “Nekazaritza ustiategietan egindako inbertsioak” izeneko laguntza programan edozein laguntza eskatu aurretik.
- c) Gutxienez, lehen mailako NLU baten tamainakoa izatea, indarreko legediaren eta 7.2 f). artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.
- d) Gutxienez, 13.300,00 euroko urteko marjina garbia izatea instalatzen den gazte bakoitzeko. Hala ere, ekoizpen betean ez dauden zurezko laborantzen ustiategiekin (fruitu laboreak, mahatsondoak, olibondoak eta beste batzuk) lotutako enpresa-planen kasuan, marjina garbi hori ustiategiaren ezaugarrien arabera egokituko da.
- e) Nekazari gaztea instalatzen den nekazaritza ustiategia ezin da etorri beste baten zatiketarik, biak aldi berean badaude, haren titularra eta gaztearen artean odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasuneko lehenengo mailako harremana badago. Halaber, gaztearen ustiategia ez da osatuta egongo aurretik aipatutako ahaidetasuneko mailako titularren ustiategietan egon diren ekoizpen elementuez, laguntza eskaera egin aurreko azken bost urteetan, betiere titular horrek nekazaritza jarduerari uzten badio gaztea instalatzen den prozesuaren bitartean.

7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta konpromisoak

7.1 Betebeharrak.

Oro har, laguntza honen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Emandako dirulaguntza erabiltzea, eman dieten xede zehatzetarako, laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.
- b) Gaztenek Balorazio Batzordeari, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari eta Ogasun eta Finantza Sailari, Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailearen organo eskudunei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europar Batasunaren organo eskudunei beren funtzioak betez eskatzen dioten informazioa emango die, oinarri arautzaile hauen kontura jasotako dirulaguntzari dagokionez; bereziki, ustiategiaren alderdi tekniko eta ekonomikoei, lanekoei, zergei eta alderdi sozialei buruzko informazioa eman beharko du.
- c) Administratiboki zein tokian bertan beharrezko kontrolak egitea ahalbidetu, honako hauek egiaztatzeko: laguntza behar bezala eman eta garatzen ari dela, enpresa plana gauzatzen ari dela eta ondoren konpromisoei bost urtez eusten zaiela.
- d) Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek, bertan berariaz jasotako betebeharez gain, kasu bakoitzean aplika daitezkeen arau komunitarioetatik datozen gainerako betebeharrak ere bete beharko dituzte, baita Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2016ko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritakoak ere, aplikatzekoak badira.

Bereziki, bete beharko dituzte ondoren zehaztuko den araudian informazioari eta publizitateari buruz onuradunentzat ezartzen diren betebeharrak. Hona hemen araudia: Europako Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 Betearazpen Erregelamenduaren 5. eta 6. artikulua eta II. eta III. eranskinak.

7.2 Konpromisoak.

Ustiategi batean instalatzen ari den gazteak, Gaztenek 2023-2027 prozeduraren pixkanakako xertatzearen arabera, enpresa plana gauzatzeko aldia amaitutakoan, hauxe hitzematzen du:

- a) Enpresa plana bertan adierazitako epean gauzatzea; epe hori gehienez bost urtekoa izango da, laguntza emateko ebazpenaren datatik zenbatzen hasita). Zenbait ekoizpen lanetan, Gaztenek 2023-2027 prozeduran ezarritakoari jarraiki, aldi hori luzatu ahalko da, balorazio batzordearen irizpidea kontuan hartuz.
- b) Nagusiki nekazaria izatea, oinarri hauen II. eranskinean ezarritako definizioaren arabera.
- c) Ustiategiaren kontrol eraginkorra izatea, 4. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- d) Nekazaritza jarduera zuzenean egitea. Ezingo du kontratatu soldatapeko eskulana, etengabe, sartzen den enpresarena ez den beste lan bat izan ez dezan.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekikoak egunean izatea.
- f) Ustiategiaren lehen mailako NLU bati dagokion lan bolumena lortzeko edo sortzea, sartzen den ustiategi motaren arabera ezarritako baldintzen mende egonda, bata zein bestea, indarreko legediaren arabera kalkulatuta, ñabardura hauekin:
 - Gaztea titular bakar gisa instalatzen bada ustiategi batean (berria edo aurretik dagoena), lehen mailako 1 NLUko edo handiagoko lan bolumenarekin, ez du beste bat sortu beharko.
 - Gaztea lehendik dagoen ustiategi elkartu batean sartzen bada beste langile, bazkide edo haren soldatapeko bat ordezkatzeko, eta ustiategiak ordurako bazkide langile kopurua baino lan bolumen (lehen sektoreko NLUak) handiagoa badu, ez du nahitaz NLUrik sortu beharko. Ordezgutako bazkide langileak edo soldatapeko langileak gutxienez bi urte eginak izan behar ditu jarraian ustiategian lanean laguntza eskatu aurretik.
 - Gaztea figura juridiko berriren bat hartu duen ustiategi batean kokatzen bada, eta hura titulartasun aldaketa batetik eratorria bada, eta ez ustiategi berri baten sorreratik, orduan sarrera ustiategi elkartu batean sartzen denaren kasuaren antzekoa izango da.
 - Gaztea lehendik dagoen ustiategi elkartu batera sartzen bada akziodun baino ez den beste bazkide baten ordezkari, lehen sektoreko NLU bat sortu beharko du.

- Gaztea lehendik dagoen ustiategi elkartu batera sartzen bada eta bazkide kopurua gehitzen badu, hasierako NLU bat sortu beharko du.
- Gaztea era juridiko berria hartu duen ustiategi batean kokatzen bada, eta bertan bazkide gisa ageri bada lehendik dagoen beste ustiategi bateko titularra edo bazkidea, beste ustiategi hori desagertu zein ez, eta beste ustiategi horren ekoizpen baliabide guztiak edo horietako batzuk jartzen baditu, sartzen den gazteak NLU bat jarri beharko du ustiategi berrirako, desagertzen den edo hondarrekoa den ustiategitik ez datozen baliabideekin.

Hala ere, balorazio batzordeak kasu bakoitza aztertu eta salbuespenak ezarri ahalko ditu, NLUen eta ustiategiaren abiapuntuko marjina garbiaren arabera.

- g) Dagokion Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezian alta emanda egotea, egiten duen nekazaritza jardueraren arabera.
- h) Egiten duen nekazaritza jarduerari dagozkion zerga erroldetan altan egon.
- i) Nekazaritza jarduera zuzenean egitea, eta ustiategia lantzeko eta erabiltzeko maila egokian mantentzea, uzte zantzurik edo jarduera galdu den zantzurik agertu gabe, laguntzaren azken tarte ordaintzen denetik gutxienez bost urtez, laguntza kobratzeko oinarri arautzaile hauetan eskatzen diren gutxieneko baldintzak mantenduz. Ez baditu betetzen, laguntza itzultzeko zenbatekoa ezarriko da, Gaztenek 2023-2027 prozeduran jasotakoaren arabera.

Gaztea sartu zen edo beste batekin bat egin zuen ustiategiaren titulartasuna aldatzen bada, behar bezala justifikatutako arrazoi batengatik, Foru Aginduak alde aurretik onartuta, laguntzaren onuradunak ustiategi berean jarraitu beharko du, edo bat egiten badu, sortzen den ustiategira sartu beharko du. Horrela, laguntzaren onuradun gisa hartutako konpromisoak betetzen jarraituko du, nekazaritza ustiategi bat sortzen duen edo beste batera sartzen den gazte gisa hasi delako lanean. Era berean, nekazari gaztearen sarrera dela eta, titular berriak aurreko ustiategiak bereganatu eta betetzeke zituen konpromisoak bereganatuko ditu. Eginkizun hori berariaz jakinaraziko da estatutueta edo legeaz jasotako dagokion agirian. Pertsona fisikoa bada, konpromiso aitortpen bidez jasoko da.

8. artikulua. Gaztenek 2023-2027 prozedura

Gaztenek 2023-2027 prozedura Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako eredia da, nekazaritzako ustiategi batean lehen aldiz kokatu nahi diren gazteei laguntzeko, NPBren Plan Estrategikoaren 6961.1 esku-hartzearen babesean.

Prozedura hori, lan talde tekniko batek ezartzen du, eta talde hori, esku hartzea kudeatzen duen unitateko Lurralde Historiko bakoitzeko pertsona batek eta Hazi Fundazioaren teknikari batek osatzen dute. Helarazten zaizkion gaiak, laguntza hori lortzeko gezurrezko baldintzak sortzearekin lotutakoak eta interesgarriak izan daitezkeen beste batzuk aztertuko ditu taldeak.

Prozedurak, gaztea nekazaritza ustiategi batean nola integratzen den, haren monitorizazio eta tutorizazio prozesua, enpresa planaren gauzatzea, prestakuntza ibilbidea eta gaztearen enpresa planaren garapenari buruzko alderdiak arautzen ditu.

Enpresa plana balorazio batzorde batek aztertuko du. Gutxienez, bi alditan bilduko da gaztea instalatzeko prozesuan zehar. Lehenengoa, laguntza ebatzi aurretik izango da eta aurkeztutako enpresa-plana ebaluatu eta, hala badagokio, onartuko du; bigarrena, laguntzaren bigarren tartea ordaintzeko proposamenaren aurretik izango da eta enpresa-planaren helburuak bete diren egiaztatuko du.

Laguntzak emateko balorazio batzordeak ondoren adierazten diren pertsonen edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonen osatuko dute:

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko burutza; kalitatezko bozka izango du.
- Laguntzen teknikari bat, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko.
- Hazi Fundazioko teknikari bat.
- EAEn aitortutako nekazaritza arloko aholkularitza zentro bateko teknikari bat, edo beste pertsona bat, gaitasun nahikoa izango duena eta pertsona gazteari enpresa plana txertatzen lagundu diona.

9. artikulua. Enpresa plana

Oinarri honetan araututako laguntza jasotzeko, gazte eskatzaileak enpresa plan bat aurkeztu behar du, Gaztenek 2023-2027 prozeduran ezarritako baldintzei jarraiki. Horrela, gaztea instalatzeko prozesua horretan oinarrituko da, eta Gaztenek 2023-2027 prozeduraren balorazio batzordeak ebaluatuko du, bitan gutxienez, laguntza ebatzi aurretik, eta laguntzaren azken ordainketa egin aurretik.

Enpresa planean, gutxienez, hau jasoko da:

- a) Karatula bat, non laguntzaren eskatzailea eta enpresa plana egin duen pertsona aurkezten diren. Horrez gain, nekazari gaztea nekazaritza jardueran zenbait fasetan hasi den lanean ere adieraziko da.
- b) Laguntzaren eskatzailea aurkeztea, 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela justifikatuz, laguntzaren onuradun gisa, ustiategiko titulartasuna eskuratzeko modalitatea, zergatik hasten den nekazaritza ustiategi baten titular gisa, prestakuntza, eta gaztea ezartzeko interesgarriak izan daitezkeen bestelako datuak.
- c) Kokatu nahi den ustiategiaren hasierako egoera.

Ustiategia zein den, eta hala badagokio, ustiategiaren izaera juridiko titularra, osatzen duten pertsonak, eta egokia bada, haietako bakoitzaren partaidetza ehunekoa adieraziko dira.

Gaztea sartu aurretik, ustiapenak dituen NLU errealak eta lehen mailakoak zehaztuko dira:

Ustiategiaren elementuak, lursailak, eraikinak, instalazioa, makinak, animaliak, eskubidea eta abar adieraziko dira, haietako bakoitza identifikatuz, eta haien dimentsioak, balorazioa eta edukitze araubidea zehaztuz.

- d) Nekazaritza ustiategiaren edo pertsonaren jarduera berrien garapenerako faseak eta helburuak.

Enpresa plana garatzeko beharrezkoak diren jarduketak zehaztuko dira, eta horiek identifikatu eta justifikatu beharko dira. Bestalde, gauzatzea eta balorazioa aurreikusi beharko dira.

Hala dagokionean, prestakuntza ibilbidea ere barne hartuko da, eta haren amaiera data laguntzaren bigarren tartearen ordainketa eskatzeko aurreikusitako eguna baino lehenagokoa izango da. Bestalde, 5 d). artikuluan ezarritako gehieneko epea bete beharko du.

Ustiategiaren errentagarritasuna aztertzen duen azterketa ekonomikoa, besteak beste, diru-sarrerak (primak eta bestelakoak barne hartuz) eta gastu guztiak (amortizazioak, soldadak, finantza gastuak eta abar) jasotzen dituen emaitzen kontu batean.

Enpresa planak bideragarria dela aurreikusi beharko du, eta gaztea kokatzen amaitutakoan, 13.300 euroko marjina garbia lortuko duela, emaitzen kontuaren arabera, edo nekazaritzako lan unitatea (NLU) finkatzeko modulu objektiboan eta laborantzen marjina gordin eta garbiak ezartzen dituen indarreko legediaren arabera. Legedi hori, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak garatzen du. Halaber, ustiategiaren tamaina aurreikusi beharko du, 7.2 f). artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, aurreko arautegiaren arabera.

- e) Sortu den ustiatagia, enpresa planean ezarritako jarduketaren arabera.

Identifikatuko dira, besteak beste, enpresa plana gauzatu ondorengo ustiatagia, titularra, edo hala badagokio, hura osatzen duten pertsonen hartutako izaera juridikoa, partaidetza ehunekoa, eta hala badagokio, haietako bakoitzaren kapital soziala.

Enpresa plana garatzearen ondorioz, bai ustiategiak, bai onuradunak, 5. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintzak lortu behar dituztela kontuan hartuko da.

Ustiategiaren elementuak, lursailak, eraikinak, instalazioa, makinak, animaliak, eskubidea eta abar adieraziko dira, haietako bakoitza identifikatuz, eta haien dimentsioak, balorazioa eta edukitze araubidea zehaztuz.

10. artikulua. Enpresa planaren aldaketak

10.1 Arrazoi justifikatuen ondorioz laguntzaren onuradunak enpresa planean aldaketa nabarmenak egitea beharrezkotzat jotzen badu, aldaketa egin baino lehen jakinarazi beharko dio Arabako Foru Aldundiko laguntzaren unitate kudeatzaile eskudunari. Unitate kudeatzaileak funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat kalifikatuko du aldaketa.

10.2 Unitate kudeatzaileak aldaketa ez-funtsezkotzat jotzen badu, onartutzat joko da, eta tutoreak egindako urteko txostenean jasoko da.

10.3 Aldaketa funtsezkotzat jotzen bada, unitate kudeatzaileak Gaztenek 2023-2027 balorazio-batzordeari jakinaraziko dio, eta aldaketa horren aldeko txostena egin eta foru-organo eskudunak onartu beharko du.

10.4 Proposatutako aldaketa onartzen bada, berriro kalkulatu da hasieran emandako laguntza eta doitu bidezko proposamen eta ebazpenaren bidez; laguntza berri hori ezin izango da hasieran emandakoa baino handiagoa izan. Laguntza berriz kalkulatuak hasieran emandako laguntza baino zenbateko txikiagoa baldin badakar, dagokion proposamen eta ebazpena emango da laguntza gutxitzeko eta, hala

badagokio, egindako lehenengo ordainketan ordaindutako gehiegizko zatiari dagokiona itzultzea eskatzeko.

10.5 Aldaketa oro justifikatua egon beharko da, eta laguntzaren oinarri arautzaileetan eskatutako baldintzak eta konpromisoak beteko dituela bermatu.

11. artikulua. Laguntzaren zenbatekoa

11.1 Dirulaguntza moduan emango da laguntza, oroharreko prezioan, eta gehieneko zenbatekoa 70.000 euro izango da onuradun bakoitzeko.

11.2 Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, enpresa planean jasotako gastu edo inbertsioen zenbatekoa (a), eta gazteak ekoizpen, komertzializazio eta ustiapen ereduaren inguruan hartu dituen zenbait irizpide (b) kontuan hartuko dira.

11.3 Laguntzaren zenbateko osoa izango da aipatutako a) eta b) epigrafeen batura. Horietako bakoitza honela kalkulatu da:

- a) Enpresa planean aurreikusitako gastu eta inbertsioak.

Kontzeptu horregatik dirulaguntzaren zenbatekoa baremoa ezarritako gastu eta inbertsioen bolumenarekiko proportzionala izango da. Deialdi bakoitzean, kontzeptu hauetarako zenbatekoak zehaztuko dira:

- Baremoa ezar daitekeen inbertsio eta gastuen gehieneko zenbatekoa (Max).
- Kontzeptu horregatik dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa (Y).
- Dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, baldin balego (Min).

Barematzekoak diren gastu eta inbertsioen kasuan, ezarritako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoan baloratuta daudenak, dirulaguntzaren zenbatekoa ezarritako gutxieneko zenbatekoaren berdina izango da.

Barematzekoak diren gastu eta inbertsioak ezarritako gutxieneko zenbatekoa baino handiagoak badira, eta baremoa ezar daitekeen inbertsio eta gastuen gehieneko zenbateko osora ez badira heltzen, dirulaguntza kalkulatzeko formula hau erabiliko da:

Gastu eta inbertsioen araberrako dirulaguntza = $(Z - \text{Min}) \times [(Y - \text{Min}) / (\text{Max} - \text{Min})] + \text{Min}$,

non, Z, enpresa planean jasotzen diren baremo ezar daitekeen gastu eta inbertsioen zenbatekoa den.

Barematzekoak diren gastu eta inbertsioak barematzekoak diren inbertsio eta gastuen gehieneko zenbatekoa (Max) baino handiagoak badira, dirulaguntzaren zenbatekoa kontzeptu horregatik ezarritako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoaren berdina izango da (Y).

Irizpide horretarako, barematzekoak diren gastu eta inbertsioetat hartuko dira nekazaritza jarduerarekin lotuta daudenak bakarrik (ekoizpenaren beraren eraldaketa eta komertzializazioa barne), eta enpresa planean jasotzen direnak, 12. eta 13. artikuluen ñabardurak kontuan hartuz.

- b) Ekoizpen ereduak, komertzializazio ereduak eta ustiapenaren ezaugarriak, enpresa planean adierazi beharko direnak, lehen batzordean aztertzeko, eta egiaztatu, bigarren balorazio batzordean:

Hiru kontzeptu horiengatik banatzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honen emaitza izango da: laguntzaren gehieneko zenbatekoa (70.000,00 euro) ken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, gastu eta inbertsioen bolumenaren arabera (Y).

Deialdi bakoitzean hiru kontzeptuetan barne hartzen diren irizpide bakoitzean aplikatzekoa den laguntzaren zenbatekoa ezarriko da. Hauek dira hiru kontzeptu horiek:

Honako ekoizpen eredu hauetakoren bati atxikitako ustiategiak:

- Ekoizpen ekologiko egiaztatua.
- Ekoizpen integratu egiaztatua.
- Urtean 10 ha baino gehiagoko lur ureztatuekin egindako ekoizpena, eskaera bakarrean barne hartutakoak. Labore mota zehaztuko da (erremolatxa, baratzeak, patata, lekaleak, alpapa eta bestelakoak).
- Ingurumen eta klima konpromiso eta kudeaketarekin loturiko bestelako konpromiso bidezko ekoizpena.
- Kalitate ziurtagiri batekin egindako ekoizpena.

Honako komertzializazio eredu hauetakoren bati atxikitako ustiategiak:

- Zirkuitu laburren bidezko komertzializazioa: gutxienez, ekoizpenaren ehuneko 50 zirkuitu laburren bidez komertzializatu beharko da. Ondorio horietarako, zirkuitu laburtzat hartuko dira ekoizle eta kontsumitzailearen artean bitartekari batek baino gehiagok esku hartzen ez duten hornidura kateak.
- Ekoizleen kooperatiben bidezko komertzializazioa: gutxienez, ekoizpenaren ehuneko 50 bide horretatik komertzializatu beharko dute. Kooperatiba bateko bazkide ziurtagiriaren eta kooperatibari egindako salmenten laburpenaren bidez egiaztatuko da.
- Eraldaketa: ekoizpenaren bolumen osoaren gaineko ehuneko 25 gutxienez ekarriko du. Ez da eraldaketatzat hartuko produktuaren ontziratzea bakarrik. Nahitaezkoa da norberaren instalazioak edo komunitarioak izatea, osasun baimenarekin, edo ekoizpen erregistroan egotea. Bestalde, eraldatu den ekoizpen unitate bakoitzak eraldatzeko nahikoa gaitasuna izan beharko du. Ez da barne hartzen hirugarrenen instalazioetan egindako eraldaketa.

Honako ustiategiaren ezaugarri hauetakoren bati atxikitako ustiategiak:

- Gutxienez, bi gazteren arteko asoziazionismoa. Proiektu berria hasten duten eta jadanik zegoen batekin jarraitzen duten gazteak izango dira, eta bazkideen

ehuneko 50 nekazari gazteak izateaz gain, kapitalaren sozialaren ehuneko 50 nekazari gazteen esku ere egon beharko da.

- Ustiatégian sartzen den eskatzailea emakumea den proiektua.
- Ustiatégia mendi eremu batean edo egoera ahuleko eremu batean kokatzea.
- Ustiatégi proiektu berritzailea. Haren eredia Balorazio Batzorde Teknikoak egiaztatuko du.

12. artikulua. Barematzekoak diren gastuak eta inbertsioak.

Barematzekoak diren gastu eta inbertsioetat hartuko dira nekazaritza jarduerarekin lotuta daudenak bakarrik (ekoizpenaren beraren eraldaketa eta komertzializazioa barne), eta enpresa planean jasotzen direnak.

Lurraren eta abereen erosketarekin eta jarduera abian jartzeko aurrekoekin lotutako gastuen kasuan, laguntza eskatu eta aurreko 24 hiletan egin ahalko dira, betiere laguntzaren eskatzailea ustiatégi baten titular gisa alta emanda badago dagoeneko, eta nekazaritza ustiatégien erregistroan (NUE) erregistratuta badago. Gainerako gastu eta inbertsioak onartuko dira laguntza eskaera eta gero egin badira.

Elkarte erakundeek egindako inbertsioen kasuan, barematzeko kontuan hartuko den zenbatekoa gazte bakoitzak ustiatégian duen partaidetza ehunekoaren arabera izango da, edo sozietatea osatzen duen gazteetako batek egindako inbertsioen kasuan, erosketaren partaidetza ehuneko kontuan hartuko da.

Orain, barematzekoak diren gastu eta inbertsioen zerrenda bat emango dugu, kasuak kasu egiten diren ñabardurak kontuan hartuz:

- a) Lurrak erostea nekazaritza erabilerarako.
- b) Lurra alokatzea, gehieneko aldia enpresa planaren iraupena izanda.
- c) Animaliak eskuratzea:
 - Behi, ahuntz, zaldi, ardi eta erleen kasuan, enpresa plana garatzeko prozesuan zehar eskuratutakoak, Plan horren aldiaren amaieran ustiatégian jarraitzen dutenak. Unitate kudeatzaileak ofizios egingo du kontsulta Nekazaritza Jardueren Erregistroan, espezie bakoitzeko ustiatégian zenbat animalia dauden egiaztatzeko.
 - Txerri, hegazti eta untxi-hazkuntzaren kasuan, animalien lehen sortaren erosketa, proiektua abian jartzeko.
- d) Baratzegintza: ekoizteko lehen material suntsikorak sartzera (substratuak, tantaz tantakoak...).
- e) Hamar urte baino gutxiagoko bigarren eskuko makinak edo ekipamenduak erostea, gaztea sartzen den ustiatégitik datozenak. Makina horiek NMEn izena emanda egon beharko dute.
- f) Eraikin erabiliak eskuratzea, enpresa plana amaitutakoan egin nahi den jardueraren lizentzia dutenak, solairu bakoitzeko 150 m²-tik gorako azalera okupatua dutenean, ustiatégiko

nekazaritza-jarduera garatzeko egokia denean eta kanpotik nekazaritzako makineriarako sarbide egokia duenean.

Frutagintza eta baratzezaintzara bideratutako ustiategien kasuan, azalerak 90 m²-koa izan behar du gutxienez, lehen adierazitako ezaugarriekin.

- g) Nekazaritza eta abeltzaintza eraikinak alokatzea, gehieneko aldia enpresa planaren iraupena izanda. Halaber, solairu bakoitzeko 150 m²-tik gorako azalera okupatua izan beharko dute, ustiategiko nekazaritza-jarduera garatzeko egokiak izan beharko dute eta nekazaritzako makineriarako sarbide egokia izan beharko dute kanpotik.

Frutagintza eta baratzezaintzara bideratutako ustiategien kasuan, azalerak 90 m²-koa izan behar du gutxienez, lehen adierazitako ezaugarriekin.

- h) Familia ustiategiaren jaraunskideei, egonez gero, jaraunspen eskubideak ordaintzea.
- i) Lehenengo instalazioaren ondoriozko notario eta erregistro gastuak.
- j) Lehenengo ekitaldiko kanpainako mailegu baten finantza kostua.
- k) Enpresa plana gauzatzeko maileguen bermeen kostua.
- l) Komertzializaziorako legez eraturako elkarte erakunde batean nahitaezko aldeari kapital soziala ekartzea.
- m) Gaztea instalatzen den elkarte erakunde bati ezarritako sarrera kuota. Ezingo dira barematu inbertsioak finantzatzeko bideratzen den kasuetan.
- n) Ustiategiaren ekoizpen-jarduerari lotutako eskubideak erostea.
- o) Nekazaritzako jarduerari ekiteko prestakuntza ikastaroen gastuak.
- p) Onuraduna instalatzeak ekarritako baimen, lizentzia eta administrazio baimen gastuak.
- q) Azterketa eta proiektuen gastuak.
- r) Nekazaritza Sailak beharrezko eta egokitutako jo dezakeen enpresa planaren garapenari esleitu ahal zaizkion bestelako gastu eta inbertsioak.

13. artikulua. Baremagarritzat jo ezin diren gastu eta inbertsioak

Hauek ez dira izango barematu ahal diren inbertsioak:

- Zuzenean ekoizpenari esleitu ahal zaion kapital zirkulatzailetzat jo ahal diren ekoizpen materialeko erosketak.
- Nekazaritzakoak ez diren erabileretarako konpartitzen diren edo konpartitu ahal diren garraiorako ibilgailuetako inbertsioak.

- Garraiobide gisa bakarrik erabiltzen diren ibilgailu automotrizen gaineko inbertsioa, nekazaritzarako bakarrik erabiltzen badira ere.
- Zeharkako zergak (BEZ).
- Ezkontideen eta lehen mailako senideen arteko erosketa- eta errentamendu-eskualdaketak, elkarte-ustiatzearen eta bazkideen artean egiten direnak, ezta bizikidetzaren unitate bereko kideen artean egiten direnak.

14. artikulua. Kostuen moderazioa

14.1 Inbertsioen zenbateko baremagarriak Nekazaritza Sailak Nekazaritza Inbertsioetarako Laguntzei buruzko dekretuan edo hura aldatzen duten arauetan zehaztutako indarreko balorazio-moduluetara egokituko dira.

14.2 Laguntzaren hasierako dirulaguntza kalkulatzeko, gastuei eta inbertsioei dagokienez, gastu eta inbertsio horiek modulatu badaude, barematu ahal izango den zenbatekoa hartuko da enpresa-planeari eta dagozkien moduluetan ezarritakoaren artean zenbateko txikiena duena. Modulatu ez badaude, enpresa-planeari kontuan jasotako balorazioa hartuko da kontuan.

14.3 Laguntzaren azken dirulaguntza kalkulatzeko, egindako gastuak eta inbertsioak modulatu gabe badaude, hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira, betiere horien zenbatekoak sektore publikoko kontratuei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako zenbatekoa gainditzen badu, eta fakturak ere. Aurrekontuen, fakturen eta laguntza emateko onartutako zenbatekoaren artean txikiena hartuko da barematu ahal den zenbatekotzat.

Gastuek eta inbertsioek ez badute gainditzen sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura- edo zerbitzu-kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa, nahikoa izango da faktura aurkeztea.

14.4 Notario- eta erregistro-gastuen, udal-tasen eta erakunde horien mendekotzat jotzen diren bestelako gastuen kasuan, erakunde horiek zehaztutako zenbatekoa hartuko da kontuan.

15. artikulua. Espedienteak lehenesteko irizpideak

Laguntza eskaerak, lortutako puntuazio handienetik txikienera lehenetsiko dira. Puntuazio hori izango da lehenetsitako irizpide hauetan lortutako puntuazioen batura, deialdian beste batzuk zehaztu ezean:

1. Barematzekoak diren gastu eta inbertsioetarako diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa gainditzen duten proiektuak: 7 puntu.
2. Gutxienez, bi gazteren arteko asoziazionismoa. Proiektu berria hasten duten eta jadanik zegoen batekin jarraitzen duten gazteak izango dira, eta bazkideen ehuneko 50 nekazari gazteak izateaz gain, kapitalaren sozialaren ehuneko 50 nekazari gazteen esku ere egon beharko da: 5 puntu.
3. Belaunaldi errelebo edo titular bakar gisa sartzea: 4 puntu.
4. Ustiatzearen instalatzen den nekazaria emakumea den proiektua: 3 puntu.

5. Nekazaritza ekologikoa ekoizteko eredutzat hartzen duen ustiatagia: puntu 1.

Berdintasunik balego, inbertsio zenbatekorik handienak lehentasuna izango du zenbateko txikiagoen aldean.

16. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea, modua eta lekua

16.1 Urtero dagokion laguntzen deialdia onartuko da, eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Besteak beste, hauek ere barne har ditzake:

- Eskabideak aurkezteko epea, modua eta lekua.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Emango den laguntza ezartzen duten zenbatekoen kuantifikazioa, hala badagokio (11. artikulua).
- Hala badagokio, lehenesteko eta laguntza kalkulatzeko hautaketa irizpideak.
- Hala badagokio, oinarri hauetan ezarritakoa osatu behar balitz, laguntza- eta ordainketa-eskaerari erantsi beharreko dokumentazioa.

16.2 Laguntza eskaera inprimaki normalizatu batean aurkeztuko da, II. eranskinean zehazten den dokumentazioarekin batera.

Bigarren tartearen ordainketa eskaera inprimaki normalizatu batean aurkeztuko da, III. eranskinean zehazten den dokumentazioarekin batera.

16.3 Unitate kudeatzaileak beharreko informazioa eta ziurtagiriak bilduko ditu Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusitik eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailetik. Era berean, beharrezkoa izango balitz, beste erakunde batzuetatik ere jasoko litzateke, betiere espedientea ebazteko eta diru laguntza ordaintzeko helburuarekin, eskatzaileak aurka egiten duela adierazten badu salbu. Kasu horretan, oinarri arautzaileetan eskatzen zaion beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua arautzen duen bezala.

Laguntza eskatzen duen ustiategiari eta bere kideei buruzko informazioa nekazaritza ustiategiaren erregistrotik aterako da. Erregistro hori behar bezala eguneratuta egon behar da, hala izatea eskatzailearen ardura izanik.

16.4 Eskabidea aurkezteak esan nahi du Gaztenek 2023/2027 prozeduran ezarritako baldintzak eta laguntza arautzen duten oinarrietan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen direla.

17. artikulua. Eskaerak zuzentzea edo hobetzea

Aurkeztutako eskaeretan akatsen bat edo zehaztasun faltaren bat aurkitzen bada, edo ezarritako baldintza guztiak ez baditu betetzen, 10 egun balioduneko epea emango zaio akats horiek zuzen ditzan, edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Bestela, horrela egin ezean, bere eskaera baztertuko dutela adieraziko

diote, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21 eta 68.1. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, aurretik emandako ebazpenaren ondoren.

Nolanahi ere, espediente bideratzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahal izango ditu, ebazpen proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

18. artikulua. Laguntza emateko prozeduraren antolamendua eta instrukzioa

18.1 Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, espedienteak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren unitate kudeatzaileak bideratuko ditu.

18.2 Eskaera zuzen formalizatu duten eskatzaileen espedienteak aztertuko dira, dagokien dirulaguntza zenbatuta, eta dagozkien kontrolak eginda. Horrela, enpresa planak lehen balorazio batzordeak aztertuko ditu, Gaztenek 2023/2027 prozeduraren arabera, dagokion akta edo txostena egiteko.

18.3 Oinarri arautzaile hauetan ezarritako laguntzaren emakida norgehiagokaren arabidean izapidetuko da, oinarri hauetan espedienteak lehenesteko ezarritako irizpideen arabera.

18.4 Behin espedienteak aztertua eta Gaztenek 2023-2027 balorazio batzordearen txostena eginda, Arabako Foru Aldundiaren laguntzak emateko kide anitzeko organoak ebazteko txosten proposamena egingo du. Hor, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko du, ezarritako lehenesteko irizpideak aplikatuz, erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera.

Espediente bakoitza deuseztatzeko arrazoiak zehaztuko ditu, eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten onartutako espedienteetan hala adieraziko du.

18.5. Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoa ondoren adierazten diren pertsonen edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonen osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko burua.
- Egituraren eta landa azpiegituraren ataleko teknikari bat, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzu horri atxikia.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Organo horren kide kopurua handi daiteke, Nekazaritza Zuzendaritzak hala erabakiz gero.

Kide anitzeko organo horrek, aholkularitza eta dagozkion txosten teknikoak egitea eska dezake bere lana egiteko.

19. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

19.1 Espedienteak ebazteko proposamena onartuta, eskumena duen Foru Organoak ebaztuko ditu, indarren arautegia kontuan hartuz. Hor, Europar Batasunaren funtsak direla aipatuko du, eta ordainketak PEPAC 2023-2027 planean barne hartzen den esku-hartze bati dagozkiola.

Baldin ez badago kreditu nahikorik betekizunak betetzen dituzten espediente guztiei laguntzak emateko, honela jokatu da:

Lehenengo ebazpena emango da, eta bertan sartuko dira ezezkoa jaso duten espedienteak eta baiezkoa jaso duten espedienteak, gordetako kreditua agortu arte, 15. kapituluaren deskribatutako lehentasun irizpideak ezarri ondoren lortutako lehentasun ordenari jarraituz. Baiezkoa jaso duten gainerako espedienteak erreserban geratuko dira bigarren ebazpena eman arte; ebazpen horrek deialdia behin betiko ebatziko du, eta laguntza esleitu die aurrerago ezarritako lehentasun ordenaren arabera hala dagokien espedientei baldin kreditua gehitu bada, eta ukatu egingo zaie laguntza, krediturik ez badago.

19.2 Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoa betez, gehienez, sei hilabete izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskabidea ezetsi dela esan nahiko du, 11/2016 Foru Arauak 23.5 artikuluan xedatutakoaren arabera (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena).

19.3 Laguntzaren ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta LGENF-en aurrekontuen konturako finantzazioaren ehunekoak adieraziko dira. Bereziki aipatu da Europar Batasunaren funtsak direla eta ordaintzak PEPAC 2023-2027 planean barne hartutako esku-hartzeari dagozkiola. Laguntzaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamabost egun baldioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.

20. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Oinarri hauetan diruz lagundutako eragiketarako onuradunak justifikatu beharko ditu, onartutako plana eta laguntza emateko ebazpena kontuan hartuz.

Laguntza bi tartetan ordainduko da:

Lehen ordaintza, emandako laguntzaren zenbateko osoaren 2/3 izango da, eta laguntza onetsi eta onuradunak onartu eta gero egingo da, berariaz egiten ez bada ere, ofizioz eginez, onartzeko ezarritako 15 eguneko baldioduneko epea amaitutakoan. Ez da egin beharko ordaintzeko eskaerarik.

Bigarren ordaintza, azken herenari dagokiona, enpresa plana amaitutakoan eta laguntza ordaintzeko eskaera, tutoreak egindako azken txostenarekin, aurkeztutakoan ordainduko da.

Tutorearen azken txostenak, instalazio prozesuaren beraren bilakaera jasotzeaz gain, gutxienez, eduki hau ere izango du:

- Besteak beste, hauek zehaztuko dira: ustiategiaren titularrak, zer izaera juridiko hartu duen, hura osatzen duten pertsonak, partaidetza ehunekoak, eta hala badagokio, haietako bakoitzaren kapital soziala.
- Enpresa plana garatzean aurreikusitako eta egindako inbertsioak eta gastua.
- Hautatutako ekoizpen eta komertzializazio ereduak, eta ustiategiaren ezaugarriak.
- Laguntzaren onuradunaren eta ustiategiaren baldintzak zehaztea eta egiaztatzea, 5. eta 6. artikuluan ezarritakoak.

- Ustiategiaren elementuak: lursailak, eraikinak, instalazioak, makinak, animaliak, eskubideak eta abar adieraziko dira, haietako bakoitza identifikatuz, eta haien dimentsioak, balorazioa eta edukitze araubidea zehaztuz.
- Jarraitutako prestakuntza ibilbidea.

Nolanahi ere, azken txostenarekin batera, enpresa plana gauzatzean egindako jarduketa, gastu eta inbertsio guztiak justifikatu eta egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dira. Bestalde, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituen egiaztagiria aurkeztuko da. 1.000,00 euroko edo hortik gorako gastuak banku-transferentzia edo bestelako banku-titulu baten bidez egiaztatuta beharko dira, uztailaren 9ko 11/2021 Legeari, iruzurra prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoari, jarraituz, edo indarreko legediak ezarritako zenbatekoaren arabera.

Laguntzaren unitate kudeatzaileak ordaintzeko eskaera, azken txostena eta onuradunak aurkeztutako agiriak aztertuko ditu. Dagozkion kontrolak egindakoan, dirulaguntzarako onartutako zenbateko justifikatua ezarriko du. Dena den, kasuaren arabera egokitzen zaizkion murrizketak aplikatu daitezke, horrek dirulaguntzaren igoera ekarri behar izan gabe, hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak diren gastu edo inbertsioak justifikatzeagatik.

Gaztenek 2023-2027 prozeduraren batzordea enpresa planaren garapena aztertzeko bilduko da, eta aldeko edo kontrako txostena egingo du. Horrela, Arabako Foru Aldundiak laguntzaren azken tartearen ordainduko du, edo aurretik jasotako laguntza itzultzea eskatuko du.

Enpresa planean jasotzen diren ekoizpen eta komertzializazio ereduetan gastuak, inbertsioak edo jarduketa ez badira gauzatzen, edota ez badira justifikatzen, horiek guztiak kobratzeko eskubidea ere galduko da.

Lehenengo ordainketa edo tartean behar baino gehiago ordaintzen den laguntzaren zatiaren aldea (laguntzaren bi herenak) jasotzeko dagoen herenaren edo zenbatekoaren zatia ordainduz konpentsatu ahalko da, kalkulu berrien arabera; horretarako txosten tekniko bat baino ez da beharko.

Enpresa plana amaitutakoan kalkulaturako laguntzaren zenbateko osoa egindako lehen ordainketa baino txikiagoa bada, itzultzeko espedienteak hasiko da, abenduaren 23ko 30/2022 Legearen, Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzeko sistema eta hari lotutako beste gai batzuk arautzen dituenaren, 9. artikuluan jasotakoaren arabera.

Laguntza hau ordaintzeko, izaera bereko beste laguntza edo dirulaguntza batzuei buruzko itzultze edo zehapen prozedurak amaituta egon beharko du, oraindik izapidetzen ari badira.

Gaztea instalatzeko prozesua aurreikusitakoa baino gehiago aurreratuko balitz enpresa planean, onuradunak eskatuta, eta Nekazaritza Sailaren aurrekontuaren erabilgarritasuna kontuan hartuz, laguntzaren azken ordainketa aurreratu liteke, unitate kudeatzailearen aldeko txostenaren eta ebazpen egokiaren ondoren.

21. artikulua. Ezarritako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea

21.1 Onuradunak oinarri arautzaile hauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea edo nahiaezko baldintzak bete gabe dirulaguntza hori eskuratzea emandako laguntza jasotzeko eskubidea galtzeko arrazoi izango da; gainera, dirurik jaso badu, onuraduna behartuta egongo da diru hori Arabako Foru Ogasunari itzultzea, aplikatu beharreko legeko interesekin batera. Horrez gainera, bidezkoak diren

akzioak egikaritu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, eta itzulketa osoa edo partziala edo gutxipena laguntza aplikatzeko araudiak ezartzen dituen kasuetan.

21.2. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

21.3 Itzulketa osoa edo partziala Nekazaritza Sailaren foru aginduaren bidez zehaztuko da, itzulketa proposamenaren txostena ikusita, ikuskapena edo kontrola egitearen ondorioz, eta onuradunari entzunaldia eman ondoren.

21.4 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

21.5 Enpresa-plana amaitu ondorengo bost urteetan 7. artikuluan zerrendatutako konpromisoren bat betetzen ez bada, laguntza osorik edo zati batean itzultzea erabaki ahal izango da, Gaztenek 2023-2027 prozeduraren arabera.

21.6 Ez da itzuliko jasotako laguntza, onuradunari eskatutako betebeharren bat ez betetzeko arrazoia I. eranskineko 2021/2116 Erregelamenduko (EB) 3. artikuluan aipatutako arrazoen artean badago:

- a) Onuradunaren heriotza edo desagertzea.
- b) Onuradunaren lanerako ezintasun luzea.
- c) Hondamendi natural larria edo hondamendi naturalarekin pareka daitekeen fenomeno klimatologiko kaltegarria, ustiategiko nekazaritza lurri kalte handia eragin diona.
- d) Ustiategiko abeltzaintzako lokalak ustekabeen suntsitzea.
- e) Epizootia, agintaritza eskudunak onartua, onuradunaren ustiategiko azienda bati edo osoari eragin diona.
- f) Mikroorganismo patogenikoen edo ingurumen faktoreek eragindako landare izurritea edo landare gaixotasuna, agintaritza eskudunak onartua eta onuradunaren ustiategiko laboreen zati bati edo guztiei eragin diona.
- g) Ustiategi osoa edo zati handi bat desjabetzea, baldin eta desjabetze hori ezin bazen aurreikusi eskaera aurkeztu zen egunean.
- h) Laborantzaren edo saldoaren zati batean edo osoan ekoizpena galtzea, eskumena duen agintaritzak onartu dituen basa faunak eragindako kalteengatik.

22. artikulua. Iruzurraren aurka borrokatzea eta interes gatazkak

Batasunaren eta Europako Funtsen kudeaketan parte hartzen duten administrazioen finantza interesa babesteko helburuarekin, Foru Aldundiak iruzurraren aurka borrokatzeko politika indartuko du, NPBren batera finantzatutako esku hartzeen esparruan.

Ondorio horietarako, iruzurtzat hartuko da, betiere Europar Batasuneko aurrekontuaren baliabideak txikiagotzea, edo funtsen okerreko atxikipena ekartzen badute; baita arlo hauei buruz nahita egindakoa egintza edo ez-egite:

- Aitorpen edo agiri faltsuak, ez zehatzak edo osatu gabeak erabiltzea eta aurkeztea.
- Informazio bat jakinaraztea, berariazko betebeharrak urratuz.
- Funtsak, beste helburu batzuetarako erabiltzea, eta ez ezarrita zeuden helburuetarako.

Iruzurraren aurka borrokatzeko neurri gisa, herritarrek horiek salatzen duten kanala dute eskura. Horren bidez, NPBtik, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (FEAGA) eta Nekazaritza Garapenerako Europako Funtsetik etortzeko funtsak iruzurrez erabiltzen ari diren susmoa badaukazu, jakinaraz dezakezu. Jakinarazpen hori, horretarako gaitutako helbide elektronikoa honen bidez egingo da: accionantifraudepac@euskadi.eus.

Jakinarazten den edozein informazio konfidentzialtasunez tratatuko da, eta igorlearen datu pertsonalak babestuko dira beti.

Era berean, iruzurra edo irregulartasuna izan daitekeen edozein gertakari, Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari jakinarazi ahal zaio, honen bidez: <http://www.igae.pap.minhfp.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/inicio.aspx>

Bestalde, uztailaren 18ko 1046/2018 Erregelamenduko (EB) 61. artikuluan ezarritakoaren arabera, interes gatazka gerta daiteke aurrekontua gauzatu duten finantza eragileek, prestakuntza egintzak barne, beren eginkizunen erabilera inpartzial eta objektiboak arriskuan ikusten badituzte, familia, afektibitate, hurbiltasun politiko, interes ekonomiko edo norberaren interesekoa den beste edozein arazoengatik. Hori horrela, garrantzitsuen alde egingo da laguntzen kudeaketan, gerta daitezkeen interes gatazkei aurre egiteko estrategiak eta neurriak ezarri, Europar Batasunaren baldintzekin eta indarrean dagoen Europar Batasuneko arautegiarekin bat etorri.

23. artikulua. Beste laguntza eta jarduera batzuekiko bateragarritasuna

23.1 Oinarri arautzaile hauetan, nekazari gazteei ezartzeko emandako laguntza ez da bateragarria izango beste erakunde edo publiko batzuek xede bererako emandako beste laguntza publiko batekin, Europar Batasuneko, Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Foru Autonomia Erkidegoko arautegian hala ezartzen bada salbu.

23.2 Laguntza hori eskatzen duten gazteek nekazaritza ustiatzean inbertitzeko laguntzak eska ditzakete. Laguntza horiek, gazteak lanean hasi nahi duen ustiatzeari emango zaizkio. "Nekazaritzako ustiatzean inbertitzeko laguntza" horren oinarri arautzaileetan, ustiatze batean lanean hasi nahi duen gazteak neurri horren onuraduna izateko bete behar dituen baldintzak ezartzen dira.

23.3 Oinarri hauetan jasotzen den nekazari gazteak ezartzeko laguntza, enpresa-plana garatzen den bitartean, eta konpromisoen mantentze-aldian, ez da bateragarria izango nahitaez bertaraztea eskatzen duten arauzko ikasketak egitearekin.

Pertsona beste ikasketak batzuk egiten edo beste jarduera bat gauzatu ari bada, Balorazio Batzordeak erabakiko du aurkeztutako enpresa plana abian jartzearekin bateragarriak diren.

24. artikulua. Laguntzaren finantzaketa.

24.1 Oinarri arautzaile hauetan azaltzen den laguntzarako bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) etorriko dira, Europako Batzordeak onartutako 2023-2027 NPEren Plan Estrategikoan jasotako baterako finantzaketa ehunekoekin bat etorritik. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak finantzatutako laguntzen zatiak deialdi bakoitzean ezarritako zenbatekoak izango ditu muga gisa.

24.2 Oinarri hauetan jasotako laguntza, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF), Europako Batzordeak neurri bakoitzerako onartu dituen ehunekoen arabera, finantza ditzakeena, LGENFren laguntzarik gabe geratuko balitz, 2023-2027 NPEren Plan Estrategikoan neurri hori finantzatzeko aurreikusitako urteko zenbatekoa agortu delako, laguntza horrek finantzaketa gehigarria eskuratu ahal izango luke, 2021/2115 Erregelamenduaren 146. artikuluan aurreikusita dagoenari jarraituz. Halakorik gertatuko balitz, dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuaren aurrekontuetatik finantzatuko lirakeke oso osorik.

24.3 Arabako Foru Aldundiak laguntzaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio onuradunari, LGENFk finantzatutako zatia, bai Arabako Foru Aldundiak berak finantzatutako zatia. LGENFak ordaindu beharreko dirulaguntza zatia Arabako Foru Aldundiak ordainduko du bere erakunde ordaintzailearen bidez. Ordaindu beharreko zenbateko horiek Nekazaritza Sailaren aurrekontu partidetan sartuko dira edo sail horren izenean horretarako irekitako kontuan. Zenbateko horiek onuradunari ordaindu beharrekoa ordaintzea ziurtatzea da helburua.

25. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan jasotzen diren dirulaguntzen onuradunek arautegi honi jarraituko diote:

- 2021/2115 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko abenduaren 2koa, nekazaritza-politika bateratuaren esparruan (NPBren plan estrategikoak) estatu kideek egin behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatua, eta EBko hurrengo Erregelamenduak indargabetzen dituena: (EB) 1305/2013 eta (EB) 1307/2013.
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako aplikatzeko arautegia.
- 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzkoa, eta hura garatzen duen arautegia.
- 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Publikoen Elkarreragingarritasunerako Nazio Eskema arautzen duena.
- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Seguritasunerako Nazio Eskema arautzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.
- 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bat egin onartzen duena.

- Urriaren 15eko 8/2015 Legea, EAeko Emakume Nekazarien Estatutuarena.
- 30/2022 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzeko sistema eta hari lotutako beste gai batzuk arautzen dituena.

Aplikatzen den Estatuko edo autonomiako beste edozein arautegi; horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Arautzaileak, hala badagokio, Kontuen Auzitegiak edo bestelako organo eskudunek eskatzen dizkieten beste informazio aurkeztu beharko dute.

I. ERANSKINA. DEFINIZIOAK

Foru dekretu honen ondorioetarako, definizio hauek aplikatuko dira:

“Nekazaritza jarduera”: nekazaritzako produktuak ekoiztea, haztea edo ereitea, uzta, jeztea, animalien hazkuntza eta animalien mantentzea (nekazaritza ondorioetarako) barne, edo nekazaritza azalera bat egoera egokian mantentzea, bazkatzeko edo ereiteko, inolako prestaketarik egin gabe, normalean erabiltzen diren nekazaritzako makinaren prestaketez harago. (Abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretua).

“Nagusiki nekazari diharduen pertsona” (NNP): nekazaria da nekazaritza ustiategi baten titularra den pertsona fisikoa da, baldin eta, gutxienez, errenta guztiaren ehuneko 50 bere ustiategian egindako nekazaritza jarduerarekin lortzen badu eta ustiategiarekin zuzeneko zerikusia duten jardueretara bideratzen duen lan denbora, urtean, nekazaritza lanaren unitateekin bat etorritz, lanerako denbora osoaren erdia edo gehiago bada.

Era berean, Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Araubide Berezian alta hartuta egon beharko da, bere kontura edo besteren konturako edo autonomoen Langileen Araubide Berezian, kasuetako edozeinetan, nekazaritza jardueraren arabera.

Ondorio horietarako, pertsona batek urte betean nekazaritza jarduerari dedikatutako denbora 1.800 ordukoa izango da (8 lan ordu eta 225 lan egun), Batzordearen (EB) 2015eko abuztuaren 13ko 2015/1391 Arautegiak, Europar Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 1166/2008 Arautegia (EE) aplikatzen duen 1200/2009 Arautegia (EE) aldatu zuenak, II. eranskinean ezarritakoaren arabera, nekazaritza ustiategien egiturari buruzko inkesten gainekoa eta nekazaritza ekoizpeneko metodoei buruzko inkestaren gainekoa. Urteko Lan Unitatea lantsaio osoaren lan baliokidea da.

“Nekazari gaztea”: eskabidea egiteko unean 18 urte beteta dituen eta 41 bete ez dituen pertsona, eta nekazaritza ustiategi batean instalatuta edo instalazio-aldian egon daitekeena.

“Nekazaritzako kooperatiba”: nekazaritza, basogintza eta abeltzaintza ustiategietako edo ustiategi mistoetako titularrak bazkide dituzten kooperatibak, baldin eta helburu hauetakoren bat badute: edo hornidurak, ekoizpen ekipamenduak eta zerbitzuak merkaturatzea edo ematea, edo bazkideen ustiategiak, haien elementu edo osagaiak, kooperatiba bera edo landa ingurunekeo bizimodua edozein arlotan edo alderdi sozioekonomikoan hobetzeko lanak egitea.

“Lan elkartuko kooperatiba edo ekoizpen kooperatiba”: hirugarrenentzako ondasun edo zerbitzuen ekoizpena batera antolatuta bazkideei lanaldi partzialeko edo osoko lanpostuak ematea xede duen kooperatiba.

“Ustiategiko elementuak”: landa ondasun higiezinak eta nekazaritzako aprobetxamendu iraunkorrerako diren bestelako guztiak, hala nola: nekazaritzarako eraikinak eta instalazioak, industriarako badira ere; ustiategian integratutako eta hari lotutako aziendak, makinak eta lanabesak, baldin eta beraien aprobetxamendua eta erabilera titularrari badagozkio, bai jabea delako, bai alokatuta dituelako, bai erabilera edo gozamen eskubideak dituelako edo besterik gabe jabeak hala uzten diolako. Era berean, “ustiategiko elementu” dira ustiategiaren titularrari dagozkion eskubide eta betebeharrak, baldin eta horiek titularraren ustiategiari lotutakoak badira.

“Nekazaritzako ustiategia”: titularrak nekazaritza jardueran enpresa modura antolatutako ondasun eta eskubide antolatuen multzoa da. Merkataritza helburuak ditu nagusi, eta unitate tekniko eta ekonomikoa osatzen du.

“Ustiategiaren marjina gordina”: Ustiategi bakoitzean jarduera baten marjina gordina (JG) honela kalkulatzen da: dimentsio fisikoa, hektareak edo abelburuak, kasuen arabera, dagokion marjina gordin estandarrekin edo koefizientearekin bidekartu behar dira. Ustiategiko jarduera guztien marjina gordinen batura ustiategiaren marjina gordin osoa da.

Ustiategiaren marjina gordin erreala jasotako dirusarreraren datuen arabera zehaztu ahalko da, nekazaritzako ekoizpen jardueren fakturen bitartez dokumentaturik; horietatik hazien, fitosanitarioen, ongarrien, labore eta pentsuen aseguruaren eta berokuntzaren, bazkaren, albaitari gastuen, oheen zuzeneko gastuak eta kasuan kasuko ganaduaren zuzeneko beste gastu batzuk kenduko dira.

Kontratututako edo bertako lanekuaren gastuak eta makinariaren edo kanpo lanen kontratazioa ez dira inola ere aintzat hartuko.

“Ustiategiaren marjina garbia”: hauen arteko aldea izango da: ekoizpen jarduera guztietatik eratorritako ustiategiko dirusarrerak, ustiategiaren dirulaguntzak barne, eta ustiategiaren gastu finko eta aldagarri guztiak, salbu eta kapital propioen eta familiako lan eskuaren ordaintetari dagozkienak.

Marjina garbia kalkulatzeko, enpresa plana egitean, indarren legedian ezarritakoari jarraituko zaio.

Gaztearen marjina garbia zerga datuen bidez egiaztatuko da, nekazaritza jardueren etekin garbiak batuz, gehi amortizazioen batura, edo hala badagokio, justifikatzea zailak diren gastuen batura. Hala ere, tutoreak, laguntzaren bigarren tartea ordaintzeko egindako enpresa planaren azken txostenean aurkeztutako ustiategiaren emaitzen kontuaren bidez ere egiazta dezake, onuradunari ustiategian duen partaidetzaren ehunekoak esleitzuz.

Zenbateko hori, aurrekoetan kontuan hartu ez diren NPBren lehen eta bigarren oinarrian jasotako dirulaguntzekin handitu ahalko da.

Elkarte ustiategien kasuan, sartzen den gaztea haren bazkide langilea bada, marjina garbia urteko ordainsariaren araberkoa izango da.

Ustiategiaren marjina garbi erreala datu fiskalekin zehaztu ahalko da enpresa plana amaitutakoan, edo, bestela, nekazaritza-jarduera produktiboetatik jasotako diru-sarrerengatik agiri bidez egiaztatutako kontabilitate-oharretan oinarritutako datuen bidez. Datu horiei honako hauen kostu finko eta aldakorrek kenduko zaizkie: haziak, fitosanitarioak, ongarriak, laboreetarako eta pentsuetarako aseguruak eta berokuntza, bazkak, albaitaritza-gastuak, oheak eta kasu bakoitzean dagokion jardueraren zuzeneko beste kostu batzuk.

“Erreferentziako errenta”: nekazaritzakoak ez diren langileen urteko batez besteko soldata gordina, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 19/1995 Legea, nekazaritza ustiategiak modernizatzeari buruzkoa, aplikatuz urtero finkatzen duena.

“Ustiatetikiko titularraren errenta osoa”: ustiatetikiko titularrak azken ekitaldian fiskalki aitortutako errenta, zenbaketatik ondare gehitzeak eta txikiagotzeak kanpoan utziz.

Hori dela eta ustiatetiaren titularrari hauek egotziko zaizkio:

- Nekazaritza jardueren errenta, etekin garbiari ekitaldian kendutako amortizazioko zuzkidurak batuz.

Nekazaritzako jardueraren errentatzat joko dira, halaber, jarduera horrekin zerikusia duten laguntzak eta dirulaguntzak, nekazaritzako produktuen prezioak konpentsatzeko funtsetatik datozenak, eta nekazaritzako ekoizpena xede nagusi duten kooperatibetako edo merkataritza sozietateetako bazkideek jasotzen dituzten soldatak.

- Bestelako enpresa jarduera edo jarduera profesioaletatik eratorritako errentak eta ustiatetik kanpo egindako lanetik eratorritako errentak, zergak direla-eta aitortu behar diren pentsioak eta sarrera pasiboak barne.
- Kapital higigarriaren eta higiezinaren errenta egozgarrien ehuneko 50, irabazpidezko ondasunen araubidearen kasuan, eta errenta pribatiboen ehuneko 100.

Gaztea elkarte baten bidez sartzen bada nekazaritza jardueran, errenta osoak zehazteko ondorioetarako banaka eskuratutakoak eta elkartean parte hartzeagatik eskuratutakoak (elkarteko partaidetza portzentajearen arabera eta horrek bere azken zerga aitorten formalizatuan aitortutako etekin guztien arabera) izango dira kontuan.

“Nekazaritzako lan unitatea (NLU)”: Lanaldi osoan aritzen den pertsona batek urtebetean nekazaritza jardueran egindako lana. Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saileko sailburuak 2016ko martxoaren 31n ezarritako Aginduaren, laboreen marjina gordinak, nekazaritzako lan unitateak (NLU) zehazteko modulu objektiboak eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiatetiako gastu finkoen koefizienteak finkatzen dituenaren, arabera kalkulatu da.

“Nekazaritzako lan unitate erreala”: Lanaldi osoan aritzen den pertsona batek urtebetean nekazaritza jardueran egindako lana. Oinarri arautzaile hauen ondorioetarako, pertsona juridikoa bada, akreditazioa duten bazkideek aurkeztutako lan unitate kopurua bakarrik kontuan hartuko da, nekazaritzako gizarte segurantzian dagokion kotizazioaren bidez.

II. ERANSKINA. LAGUNTZA ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA

Agiri hauek aurkeztu behar dira (baliteke agiri gehiago aurkezteko eskatzea):

ORO HAR

1. Inprimaki normalizatua. (1)
2. Pertsona fisikoaren nortasunaren egiaztagiria: NANA (*)
3. Lan bizitzaren txostena. (*)
4. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkala frogatzen duen ziurtagiria. (*)
5. Eskatzaileak Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailarekiko edo beste foru ogasun batekiko betebeharrak egunean dauzkala frogatzen duen ziurtagiria. (*)

Zerga egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egonez gero, ziurtagiri hau aurkeztu behar da.

6. Nekazaritzako ustiategi baten titulartasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. (1)
7. Enpresa plana.
8. Hirugarrenen alta fitxa, jatorrizko inprimaki normalizatu batean, eta finantza entitatearen eta interesdunaren adostasuna. AFAREN egoitza elektronikoan ere izapidetu daitezke, bai altak, bai aldaketak: (1)

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava?inheritRedirect=true>

9. Lan gaitasunaren egiaztagiria (gutxienez prestakuntzako 100 ordu).

GAINERA, AURRETIK LANEAN ARI DEN ELKARTE USTIATEGI BATEAN SARTUZ
GERO

1. Ustiategiaren entitate titularraren IFZ. (*)
2. Gazte bat elkarte-ustiapenean onartzeko akordioa. (1)
3. Ustiategiko kideen datu telematikoak ikusteko aukera ematen duen agiria, laguntza izapidetzean erabiltzeko. (1)
4. Sartzen den entitatearen datu telematikoak ikusteko aukera ematen duen agiria, laguntza izapidetzean erabiltzeko. (1)
5. Ustiategiari buruzko datuak ustiategiaren fitxaren arabera: ustiategia non dagoen, kideen partaidetza ehunekoak, abereen errolda, lurzatien eta laborantzen zerrenda, makinak, eraikuntzak, eskubideak eta kuotak. (*)

6. Eraketaren eskritura publikoa edo kontratu pribatua, eta, behar denean, estatutuak ere bai.
7. Zuzendaritza Kontseiluaren osaera, sozietate mugatu, sozietate anonimo eta kooperatiba sozietateen kasuan. (1)
8. Bidezkoa denean, bazkide langileen 10-T agiria.
9. Soldatapeko langileen egiaztagiria, baleude, azken urte edo kanpainako gizarte segurantzako kotizazioen ordainketaren ziurtagirien bidez.
10. Behar denean, sozietateen gaineko zergaren aitortpena. (*)
11. Eskatzailea jaraunspen erkidegoa edo ondasun erkidegoa bada, indibisio ituna, 6 urtekoa, gutxienez, eskaera aurkezten den egunetik, elkarteko kide guztiek sinatua. (1)

(*) Atal honetan adierazitako ziurtagiriak ez ditu aurkeztu behar, Administrazioak badauzka eta. Berariaz aurka eginez gero, eskaerarekin batera prozedurari buruzko datu edo agiriak aurkeztu beharko ditu nahitaez, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

(1) Agiriaren eredia AFAREN egoitza elektronikoan dago.

III. ERANSKINA. LAGUNTZAREN BIGARREN ZATIA ORDAINTZEKO AURKEZTU
BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Agiri hauek aurkeztu behar dira (baliteke agiri gehiago aurkezteko eskatzea):

- 1) Ordaintzeko eskaeraren inprimaki normalizatua. (1)
- 2) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkala frogatzen duen ziurtagiria. (*)
- 3) Eskatzaileak Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailarekiko edo beste foru ogasun batekiko betebeharrak egunean dauzkala frogatzen duen ziurtagiria. (*)

Zerga egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egonez gero, ziurtagiri hau aurkeztu behar da.

4) Ustiategiari buruzko datuak ustiategiaren fitxaren arabera: ustiatagia non dagoen, kideen partaidetza ehunekoak, abereen errolda, lurzatiaren eta laborantzen zerrenda, makinak, eraikuntzak, eskubideak eta kuotak. (*)

5) Enpresa planaren azken txostena; honako agiri hauek erantsi behar zaizkio:

- a. Baremazioa aplikatu zaien gastu eta inbertsioen fakturak.
- b. Egindako gastuen eta inbertsioen ordainagiriak.
- c. Behar denean, nekazaritzako jardueratik kanpo lanean egindako orduen buruzko erantzukizunpeko adierazpena edo lan kontratua. (1)
- d. Ustiategiaren emaitzen kontua.
- e. Azken ekitaldiko PFEZen aitortpena. (*)
- f. Behar denean, sozietateen gaineko zergaren aitortpena. (*)
- g. Egiten duen nekazaritza jarduerari dagozkion zerga erroldetako alta. (*)
- h. Kontratuak: salerosketak, errentamenduak, apartzeriak eta erabilera lagapenak.
- i. Eraketaren eskritura publikoa edo kontratu pribatua, eta, behar denean, estatutuak ere bai.
- j. Behar denean, ordeztutako pertsonak erretiroa hartu duela frogatzen duen dokumentazioa.
- k. Behar denean, zuzendaritza kontseiluaren osaera. (1)
- l. Lan gaitasunaren egiaztagiria.
- m. Behar denean, bazkide langileen 10-T agiria.
- n. Soldatapeko langilerik egonez gero, haien egiaztagiriak, hain zuzen ere azken urteko edo kanpainako Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainagiriak. (*)

- o. Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroko inskripzioa. (*)
- p. Gizarte Segurantzaren nekazaritzako jardueran alta emanda dagoelako frogagiria. (*)
- q. Behar denean, ekoizpen eredu hauen egiaztagiriak:
 - Behar denean, ziurtatutako ekoizpen ekologikoaren erregistroetan inskribatuta dagoela frogatzen duen ziurtagiria (ENEK ziurtagiria). (*)
 - Ekoizpen integratuaren ziurtagiria (HAZI fundazioa). (*)
 - Urtean 10 ha lur ureztatu baino gehiago, eskaera bakarrean (NPB aitortzea). (*)
 - Ingurumenaren edo klimaren inguruko konpromisoa edo kudeaketarekin lotutako konpromisoa (nekazaritza eta ingurumeneko laguntza emateko ebazpena). (*)
 - Kalitate ziurtagiri batekin egindako ekoizpena (Arabako Txakolina / Errioxa JD / Euskaber / Euskal Baserri / Eusko Label / Idiazabal / beste batzuk). (*)
- r. Behar denean, merkaturatzeko eredu hauen egiaztagiriak:
 - Zirkuitu laburrak (egindako fakturen zerrenda).
 - Kooperatiba bidez merkaturatzea (kooperatibaren ziurtagiria eta fakturazioaren ziurtagiria).
 - Eraldakuntza (jardueraren lizentzia, osasun erregistroa, ekoizpenaren aitortzea).
- s. Enpresa planaren betearazpenaren inguruko beste agiri garrantzitsu guztiak.

(*) Atal honetan adierazitako ziurtagiriak ez ditu aurkeztu behar, Administrazioak badauzka eta. Berariaz aurka eginez gero, eskaerarekin batera prozedurari buruzko datu edo agiriak aurkeztu beharko ditu nahitaez, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

(1) Agiriaren ereduak AFaren egoitza elektronikoan dago.